

Sare Hiritarra Iruñeko peñei:

Sareren barruan gauden peña desberdineko bazkideak gara. Jakinen duzuen bezala, SARE sentsibilitate ezberdinetako jendeak osatutako sare herritarra da. Pertsona guttiok eskubide guztiak bermatuta izatearen beharraz konbentziturak gaude, eta batzen, saretzen gaituen helburua euskal preso politikoen eskubideen aldeko lana da. Oraingo honetan zuekin, peñetako bazkideekin harremanetan jartzen gara, jendartearen parte aktibo eta garrantzitsu zareten heinean, hausnarketa bat zuekin konpartitu, eta zuen babesa eta konpromezua eskatzeko, beharrezkoa konsideratzen ez dugun sufrimendu batekin bukatzeko.

Peñetan pertsona asko dira haien lagun edota senideen dispertsioa sufritzen dutenak. Beste zigor bat, behartzen dituen bidai luzeak egitera, honek dakartzan arriskuarekin, neke fisiko eta psikikoarekin, eta suposatzen duen galera ekonomikoarekin.

Gaur egun, 352 dira dispertsatuta dauden preso politikoa. Haietatik 50 nafarrak dira. Haien artean daude La Unica-ko bazkide Juan Mari Etxabarri eta Aurken Sola, Jaranako Iñaki Armendariz eta Alberto Ilundain, Muthiko Alaiak-eko Josetxo Arizkuren, Armonia Txantreanako Txuma Altable eta Mikel Gil, Iñaki Marin San Fermin peñakoa eta Anaitasunako bazkide Xabi Rey.

Dispertsatuta igarotako urte luzeek senide eta lagunak kondena bikoitza bizitzera behartu dituzte, milaka kilometro egin behar izan dituztelako euren hurbilekoak ikusteko. Alegria de Iruñako 5 urteko bazkide batek 1600 kmtako joan-etorriak egin behar izaten ditu bere aitarekin egoteko. Beste aldetik, gurasoak zaharrak izanik, urteak daramatzate euren seme edota alabak ikusi gabe, zaharregiak direlako halako bidai luze eta astunak egiteko. Norbait barruan duten peñetako bazkide guztiek sufritzen dute zigor bikoitz hau. Politika penitentziario hau berdintasun eta justizia printzipioen kontrakoa da, irizpide politiko eta alderdikoietan oinarritzen da, legediak jasotzen dituen bermeetatik urruntzen da, eta preso bere inguru sozioafektibotik hurbilen dagoen espetxean egoteko eskubidea urratzen du, baina baita intimitaterako, bizitza familiarerako, eta informazioa jasotzeko eskubideak ere.

Nahiz eta ezarritako zigorra haien ingurune sozioafektibotik hurbilen dagoen espetxean betetzeko eskubidea eduki, euskal presoak urrunduta mantentzen dituzte, zigor bikoitza ezarriz, senide eta lagunak zigortuz, urtero batazbeste 63599 kilometro egin behar izaten dituztelarik. Bidai luze hauek egin behar izateak 16 hildako eragin ditu, hoietako bi iruindarrak ziren, eta hamarnaka zauritu, dispertsio politika martxan jarri zutenetik gertatutako 300 istripu baino gehiagotan. Era berean, senideentzat karga ekonomiko handia suposatzen du, 19653 € urtean familia bakoitzeko. Karga honi kasu askotan lanean eragindako interferentzia gehitzen zaio, jendeak egunak eskatu behar izaten dituelarik bidai luzeak egin ahal izateko.

Dispertsio politika martxan jarri eta 28 urteetara, nazioarteko erakunde eta erreferentzia ugari salbuespen politika honen kontrako posizioa hartu dute. Haien artean, Amnesty International, Human Rights Watch, eta Nazio Batuen Erakundeko kontalari berezia. Bada ere Giza Eskubideen Europar Auzitegiaren sententzia bat presoaren intimitaterako eta bizitza familiarra edukitzeko eskubidearen aldekoa, gerora Giza Eskubideen eta Askatasun Publikoen Europar Konbenioan onartua izan dena. Sententzia honek garrantzi berezia dauka, Konbenioaren sinatzaile diren estatu guztiei eragiten baitie, estatu espainola barne.

Uste dugu badela garaia beste pauso bat emateko giza eskubideen errespetuan oinarrituriko jendartearen eraikuntzan, bakea eta elkarbizitzan aldeko lana egingo duen jendartearen eraikuntzan. Zentzu horretan premiazkoa eta ezinbestekoa da dispertsio politikari amaiera ematea.

Euskal jendartearen gehiengo bat dispertsioaren kontra posizionatu da dagoeneko, berriro ere urtarrilak 14-an Bilbon egin zen manifestaldian ikusi ahal izan genuen bezala. Nafar parlamentuko mahaiak eta juntak, 2016-ko urtarrilaren 25-ean, hauxe onartu zuen: "salbuespen politika penitentziarioak arbuiatzea, presoan dispertsioa eta urruntzea barne, eta espainiar gobernuari exigitzen dio haien derogazioa". Era berean, Iruñeko udalak, adierazpen baten bidez, zera onartu zuen: "irmoki arbuiatzea salbuespen politika penitentziarioak, presoan dispertsioa eta urruntzea barne, eta espainiako gobernuari haien derogazioa exigitzea".

Orain arte, peñek zuen alea jarri duzue bidegabea den egoera hau zuen pankartetan isladatuz, presoan gerturatzea eskatzen duen mapa eta geziak jarritz, eta presoan hurbiltzea eskatuz.

Dispertsio politika ankerrarekin mobilizazioa eta presio kolektiboa hain garrantzitsua den une honetan, zuen konpromezua eta ekarpena eskatzen dizuegu. Guztion artean norabide horretan pausoak ematea beharrezkoa da, eta horregatik eskatzen dizuegu eragile ezberdinen partetik egingo diren ekimen eta deialdiak zuen atxikimenduarekin laguntzea. Jendartearen parte aktibo zareten heinean, peñek dispertsio politika ankerra eta bidegabearekin bukatzeko laguntzen jarraitu dezakezue.

Legez, euskal preso politikoei Euskal Herrian edota Euskal Herritik hurbil egotea dagokie. Jendarte bezala ezin dugu onartu haien eskubideak urratuak izatea. Dispertsioarekin amaitzea lortu behar dugu. Aurrera egin behar dugu eskubide guztiak lortzeko pertsona guztientzako. Zeregin kolektibo bat da. Denon artean lortu dezakegu. Merezi du.